

CIE
MOUKA

Hasian-hasi

Goazen bururaino

Kultur arteko bitartekaritza

Mouka konpainiaren hitza

Kultur arteko bitartekaritza proiektu bat, zendako ?

« Hasian-hasi » proiektua ikasleentzat aukera ederra da, heien sormena aztertzeko eguneroko bizitzako gai garrantzitsuak jorratuz. Objektu Antzerkiaren bidez, adierazten, entzuten eta partekatzen ikasiko dute, aldi berean, arteko trebetasun baliotsuak garatuz. Ipuin zahar, erraustu eta paternalista horiek aztertuz, ikasleek morala deszifratzen eta argitarazten ikasteko aukera ukanen dute. Kultur arteko bitartekaritza honek, belaunaldi gazteen ideia murriztu eta itotuak irauli nahi luke, heien balio etiko eta moralak bereganatuz eta identifikatuz, heien borondate librearen adierazteko.

Hautuaren nozioari buruz galdezkatuz eta hautu artistikoak egin behar dituzten egoerei aurre eginez, ikasleek heien lehentasunak, balioak eta heien erabakien ondorioak pentsatzen hasten dira. Proiektu honek, ikertze on bat da askatasuna eta onarpenaren gaier hurbiltzeko.« Hasian-hasi » opari eder bat da. Ikasleek heien emozioak eta ideiak aztertzeko espazio segurua bat eskaintzen die. Honek kritika kontzientzia garatzen laguntzen die eta heien buruarenganako konfiantza indartzen besteen hautuak errespetaraziz. Halako proiektu bat bizi ondoren, heien gizartetik hurbildu arau, iduri zaugu heien biziaren autore eta aktore arduradun bihurtuko direla. Horregatik, proiektu hau ez da aktibitate artistiko sinple bat, baizik eta herritartasunerako hezkuntzako egiazko tresna bat.

Beraz, « Hasian-Hasi », behin hasiz gero, goazen bururaino !

« Hasian-hasi » kultur arteko bitartekaritza proiektua lehen mailako eskolentzat, bigarren mailako ikastetxeentzat eta lizeoko ikasleentzat pentsatua izan da. Bainan errexki lurralde proiektu artistiko bat bila daiteke: familia tailerra modu bateetan, zailtasunak dituzten haur tailerretan (MECS delakoetan)... baita kultura eta mediku-sozialeko hainbat eragileekin lankidetzan aritzeko. Malgutasun honek esperientzia aberasgarriak eta guztientzat eskuragarriak sortzeko aukera ematen du. Gaur egun ber kultura komunitate bat sortarazteko, elkarrekin biharko artistak bilaka gaitezen !

Hasian-hasi, kultur arteko bitartekaritza

Gure kultur arteko bitartekaritza proiektua Mouka konpainiaren « Hasian-hasi » ikusgarriaren inguruan antolatzen da. Ikuskizun hau, ikusle bakar batentzat sortutako gelatxo gisa pentsatua da. Esperientzia imersibo eta pertsonalizatua eskaintzen du, zointan parte-hartzaile bakoitzaren hautuek eragina ukanen duten beren esperientzia teatraletan. Proiektu honen bidez, ikasleak beren eguneroko bizitzako gai garrantzitsuak esploratzeko prozesu sortzaile batean engaiatu nahi ditugu, Objektu Antzerkiaren aberastasunak ezagutuko dituztelarik betan.

Bitartekaritzaren helburuak

- **Adierazpen pertsonala laguntzea** : Ikasleak beren ingurunea eta hautuak antzerki forma baten bidez aztertzeraz animatzea.
- **Arte gaitasunak hedatzea** : Ikasleei Objektu Antzerkiaren teknikak irakastea eta antzerkitxoak sortzen laguntzea.
- **Entzule eta banatzaile bilakatzea** : Ikasleek beren ikastetxeko komunitatean sortutako solasak biltzea, eszenaratzen laguntzeko trukaketa eta eztabaida espazio bat sortzea.



"EAC" ibilbideari buruzko bideoa, Serres-Castets-eko René Forgues ikastetxean, Pirineo-Atlantikoa departamenduko "Grandir avec la culture" programaren baitan.

Proiektuaren antolabidea

- **« Hasian-hasi » ren lehen harremana**

« Hasian-hasi » esperentzia pertsonal bat da, ikuslea ikuskizun txiki bat entzuteko eta ikusteko aukera ematen diona, entzuteko kabina ibiltari batean. Ikasleek eguneroko objektu bat hautatuko dute. Objektu hautu honi esker « Hasian-hasi » tradiziozko ipuin bat* irudikatzen duen ikusgarri bat ezagutuko dute. Hautu honek beren esperientzia teatrala eragingo du eszena pertsonalizatua bizitzeko aukera emanez. Ikuskizun labur hauetan parte hartzeko, ikasleak eta ikastetxeko langileak izena ematera gonbidatuak izanen dira.

*Mouka konpainiaren interpretazio libre batean: Charles Perrault-en Bizarrurdin eta Hiru txerri kumeak; Grimm anaien Hantzel eta Gretel; Hans Christian Andersen-en Pospolina txiki, Alphonse Daudet-en Seguin jaunaren ahuntza...

- **Objektu Antzerkiaren lehen urratsak**

Lehen elkarretaratze honen ondoren, Objektu Antzerkiaren sarrera bat proposatuko da. Ikasleek objektuak maneiatuko ikasiko dute.

Nola bilakarazi eguneroko objektuak, Objektu Antzerki batetara ? :

- Narrazio batean integratuz
- Eszenatoki espazioa esploratuz

Fase hau funtsezkoa da ikasleek beren eszenetak sortaraz dezaten.

- **Moldatzea eta Bilketa**

Ikasleek beren ikastetxean arazo, buruhauste edo injustizi bat galdezkatu beharko dute. Ez duten ezagutzen pertsona bat atxemanen dute elkarriketa baten egiteko, eta horrela, grabatuko diren solasak bilduko dituzte. Ele bilketa horiek beren antzerkitxoek sortzeko oinarria izango da. Adibide gisa: 2024ko René Forge ikastetxean landutako galderak :

- Neskak kanpoan mutilak baino lanjerean ote dira ?
- Desberdina izatea, txikiagoa izatea ahultasun bat ote da?

- **Iruditu**

Problematika definitu eta lekukotasunak bildu ondoren, ikasleek eszenaratzen dituzten solasak irudikatzeko, erabiliko dituzten objektuei buruz pentsatu beharko dute. Ideien eta ikuspundu trukaketari esker heien hautuak klasearen aurrean aurkeztuko dituzte.

- **Eszenaratu**

Mouka konpainiako artistak ikasleak beren sorkuntzen eszenaratzea lagunduko dituzte. Azken emanaldiaren prestaketa egiteko, talde bakotxak bere rolen definizioa egingo du, maneiatzaile eta teknikari bilakatuz.

- **Partekatu eta eman**

Ikusgarriaren denbora da. Ikasleek beren antzerkitxoak entzuteko kabinan emanen dituzte. Emanaldi honek beren lana partekatzeko eta sorkuntza ospatzeko parada izango da. »



Antolamendua

Proiektua aste batean zehar garatuko da, egunero aktibitate desberdinak eginez:

Astelehena

Goizean: Mouka Kia-ren heltzea / « Entzuteko kabina » ren instalazioa eta muntaketa
-Mouka Kia eta proiektuaren aurkezpena klasean Arratsaldean: -« Hasian-hasi» aurkezpena klaseko ikasle guzietan

Asteartea

Goizean: Objektu Antzerkiaren lehen irakaspena eta ikerketen hasiera Arratsaldean:
-« Hasian-hasi » ikusgarriak ikastetxeko langileei eta ikasleei emanak izanen dira

Asteazkena

Goizean:-Taldeka galdezkatuko dugu gure burua, buruhauste edo injustizi gaia batetari buruz, Marion-ekin
-Anartean « Hasian-hasi » ikusgarriak segitzen ditu bere emanaldiak ikastetxeko langileei eta ikasleei, Claire-k emanik
-Galderen azken formulazioak (Claire eta Marion-ekin)

Osteguna

Goizean: Ikerketen amaiera, objektuen hautaketa eta irudien lehen zirriborroak Arratsaldean: -
Soinu grabaketaren bilketa eta muntaketa

Ostirala

Goizean: Eszenaratze amaitzea eta « entzuteko kabina-n » errepetizioak, taldeka Arratsaldean:
-Taldeka irudikapena eta eszenatxo txikien hitzorduen forma - Mouka Kia-ren desmuntaketa eta abiatzea

Oharrak: Artisten gidatutako tailer bakoitza ikastetxeko irakasle baten presentziarekin lagunduta egongo da, horrela egokitutako laguntza bermatuz.

« Hasian-hasi » ikuskizunaren aurkezpenarako, aurretik hitzorduen zerrenda bat antolatuko da parte-hartzaileen sarrera eta kudeaketa errazteko.

Aste mota hau proposamen moldagarria bat da interesatutako ikastetxe bakoitzaren beharren arabera.



Loturak eta bibliografia

« Hasian-Hasi » ren sorkuntzaren landutako gai eta baliabide garrantzitsuak

Liburuak dilema eta hautuaren nozioari buruz

- "Le cid" de Corneille -ren eskutik
- "L'influence de l'odeur des croissants chaud" Ruwen Ogien eskutik
- "La philosophie morale" Ruwen Ogien eskutik
- "Pensez-vous vraiment ce que croyez penser" Marianne Chaillan-en eskutik

Ipuinak

- « Barbe Bleu » de Charles Perrault-en eskutik
- « Les Trois petits cochons » de Charles Perrault-en eskutik
- « Hansel et Gretel » des Frères Grimm anaiei eskutik
- « La petite fille aux allumettes » de Hans Christian Andersen-en eskutik
- « La chèvre de Mr Seguin » Les lettres de mon moulin d'Alphonse Daudet-en eskutik

Podcasts-ak

- <https://www.radiofrance.fr/franceculture/podcasts/le-tete-a-tete/ruwen-ogien-unesingularite-philosophique-2846743>
- <https://www.radiofrance.fr/franceculture/podcasts/la-suite-dans-les-idees/l-influence-del-odeur-des-croissants-chauds-sur-la-bonte-humaine-et-autres-questions-de-moraleexperimentale-3099727>
- <https://www.radiofrance.fr/franceculture/podcasts/avec-philosophie/la-fiction-peut-ellenous-aider-a-resoudre-nos-dilemmes-moraux-9104340>

Filmak

- "Boulevard du crépuscule" Billy Wilder-ek Regina
- "Nous, les vivants" Roy Anderssen-ek Regina
- "Un pigeon perché sur une branche philosophe sur l'existence" Roy Anderssen-ek Regina
- "Pour l'éternité" de Roy Anderssen-ek Regina

Eragina plastikoa eta estetikoa

- Edward Hopper (margolaria)
- Jan Švankmajer (zuzendaria)

Objektu antzerkiaren asmatzaileak

- [Christian Carrignon Théâtre de cuisine](#)
- [Agnès Limbos Gare Centrale](#) Kia
- [Vélo Théâtre](#)

* Ahantzi gabe « Teatro Marnaf », Jacques Templereau-rekin, objektuen antzerkiaren asmatzaileetako bat dela ere.

Objektu antzerkiaren konpaini batzu

[Les maladroits](#) Kia

[Tac tac](#) Kia

[Bakelite](#) Kia

https://www.compagnie-bakelite.com/theatre-d-objetrennes_spectacles_hostile_fr.html

Hasian-hasi - ikusgarriaren baldintzak

Gure entzuteko kabina bizikleta elektriko baten bidez mugitzen da. Eguneroko leku desberdinetan instalatu gaitezke. Ordu batean, hamar bat pertsona pasatzeko aukera dugu. Gutti gora bera 60/65 pertsona egun batean.

16A-ko elektrizitate-hargune irteera bat beharko dugu.

Prezioak

Gurekin harremanetan sartu pertsonalizatutako aurrekontu batendako

Bi esku hartzaile / Janaria antolatzailearen gain. (beharrez)

Garraioa: Joan/jina Ahurti herritik 0,50 €/kilometroa





Kontaktu artistikoa

Marion Gardie
+33(0)6 78 58 27 78
compagniemouka@gmail.com

Hedapen eta komunikazio kontaktua

Eva Meignen
+33(0)6 89 67 29 14
eva.meignen.pro@gmail.com

WWW.CIEMOUKA.FA